

Ibilbide laburra bakarrak aukeran aprilaren 19an egingo dan Ubideko Biran

11. orrialdea

Errotarik errota oinez Zeanurin

Maiatzaren 3an izango da Zeanuriko Erroten X. Ibilaldia. Ibilbide bi dagoz, luzea 18 km.koa eta laburra 12 km.koa. Zeanurin hamazortzi errota hidrauliko edo euren aztarnak dagoz. Martxa hau bederatzi erroten ondotik pasauko da eta bitan sartu-urtena egiteko aukerea egongo da. **10. orrialdea**



Match Impro, antzerki inprobisazino lehia Lasarte Aretoan 24an

13. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

228

2015eko aprilaren 16a
hamabostekaria
www.begitu.org

Martiaren 17an zabaldu zan Bilbon, Bizkaiko Foru Liburutegian, *Bizkaiko auzo-ikastolak 1919-37. Hezkuntzaren eta kulturaren aldeko jarduketa erabakigarria* izenburua daraman erakusketa, eta bertan egongo da ikusgai bagilaren 30era arte.

1919 eta 1937 arteko auzo eskolak Foru Liburutegiko erakusketa baten



Uribeko auzo eskolea (Zeanuri).

Jon Urutxurtu historialari zeanuriztarrek erreportajea egin dau Arratiako auzo eskolen gainean. Auzo eskolak Bizkaiko Foru Aldundiak sortu ebazan 1919an eta 1937ra arte egon ziran martxan. Arratian hamaika egon ziran eta Zeberion beste bi. Zeanurin, Diman, Igorren, Lemoan eta Bediako auzuneetan sakabanaturik egon ziran eskolok. Gehienak Udalak eregi baebezan be, ba-

tzuek auzokideen lanaren frutua izan ziran. Auzokoak dirua, eskubeharra, basoetako egurra, harrobietako harria, idiak eta burdiak ipini ebezan eskola horreetako batzuk eregiteko. Auzokideak dirua ipini behar ebenean, tirabirak sortzean ziran batzuetan euren artean. Horixe gertatu zan Ipiñaburun, Fabian Angoitiak bere liburuan jaso ebaren arabera. **8. eta 9. orrialdeak**

ARRATIA

Gure Esku Dago

Apirilaren 25ean Gure Esku Dago dinamikea, jostekile eguna antolatuta dabil hainbat herritan. Gurean, Lemoa, Areatza eta Zeanurik antolatuta dabez daborduko egun horretarako ekintzak.

Bagilaren 21ean uriburuetan hautestontzi erraldoiak egiteko, herrietan josi behar dira herri bakoitxeko oihalak eta hilaren 25ean, herrietako plazetan, oihalok josteko batuko da jentea. Holan, Lemoan Lemoa eta Bediakoak batuko dira Lemoako Plaza Gorrian. Areatzako plazea be jostekilez eta oihal koloretzuz beteko da.

Zeanurin egun osoko ekitaldia antolatuta dabe: auzuneetatik oinez bajatuko da jentea plazara eta joste lana egin ostean triki poteoa eta herri bazkaria izango dabe.

Diman, atzeratu egin dabe jostekile eguna, 25ean jentilen inguruko herri antzerkia eta beste hainbat ekitaldi dagoz eta. **5. orrialdea**

DIMA

Jentilak eta sorginak herri antzerkian

Ehundaka dimoztarrek hartuko dabez Dimako kaleak eta inguru mitologikoak hilaren 25ean, jentil, sorgin edo kristinau jantzita. Kultura tradizionala plazaratzeko asmoagaz, jentilen gaineko hainbat ekitaldi antolatu dira. Holan, hilaren 13tik 24ra arte, erakusketa bat egongo da liburutegian. Eta 25ean, ibilbide mitologikoa egongo da Jentilzubi eta Baltzolako kobatik zehar. Koba barruan azalpenak eta ikuskizunak egongo dira. Gaubean, izaki mitologikoak hartuko dabez Dimako kaleak kalejiran eta ondoren, herri antzerkia egingo dabe pelotalekuan. **5. orrialdea**



LEMOA

Palestinaren inguruko dokumentalak

Lemoako Udalak "Palestinan Giza Eskubideen Inguruko I. Ziklo Dokumentala" antolatu dau Mundubat Gobernuaz Kanpoko Erakundeagaz alkarlanean. Dokumental emonaldiak eguenetan izango dira, aprilaren 16an hasita eta maiatzaren 7ra arte. *Palestine (off the record)*; *Y sin embargo*, *Al Quds*; *Puertas al mar*; *3 mujeres palestinas* eta *Fuego sobre el Marmara* dira ziklo honetako dokumentalak. Saio bakoitza gaian aditua dan batek aurkeztuko dau. **5. orrialdea**

Salud
Y
Arte

Telleri 26 Dima, Bizkaia
Telefonoa: 688 686 708
saludyartedima@gmail.com
www.saludyarte.biz

Glutenik gabeko denda

Aukera zabala glutenik gabeko produktuekin
Produktu ugari laktosa gabe
Gizarte eta laguntzaile EZE
Artisautza krema sendagarriak

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

ZEBERIOKO UDALETXEA EREGITEKO LANAK 1743-46 (II)

Udaletxeak eregitearen lehenengo ondorioa izan zan erreztu egin ebala premina biziko ondasunen merkataritza. Izan be, eraikuntza honek egiazko merkatal guneak izaten ziran eta hainbat zerbitzu eskeintzen eben: beheko solairuan taberna bat egoten zan eta han ogia eta ardoak eskuratu eitekezan. Hur-hurrean herriko alondegia egoten zan eta hango arduradunak Errioxako ardoak saltzeaz gainera, pisu publikoa be babestuten eban. Harategian, neguan kortan egoten ziran behien okelea baino merkeago saltzean zan udan larreko behiaren okelea, lau marabeditan hain zuzen. Janari dendan produktu

ugari eskeintzen jakiezan herritarri; beste batzuen artean, gatz, tabakoa, sardinak eta makailoa. Atzenik, nahiko arrunta izaten zan udaletxean bertan herriko kartzela egotea, eraikuntza hau besteak baino sendoagoa izaten zalako. Gainera, Zeberioko udaletxeke gela baten, herriko medikua bizi izan zan hainbat hamarkadatan.

Udaletxea eregiteak ondorio administratiboak be euki ebazan eta eragin zuzena izan eban herritarren parte hartze politikoan, herritar guztiak ez ziralako kabituten batzar aretoan. Horregatik, historialari batzuek dinoe XVII. eta XVIII. mendeetan euskal administrazioa publikoa, Frantzia

eta Espainiako monarkietako beste herri batzuetakoa baino demokratikoagoa zala, Biltzar edo Batzar zabalak egiten ziralako eleizan edo aire zabalean.

Artean, 478 batzar egin ziran XVIII. mendean; hau da, urteko lau; Arratia-Nerbioi eremuko adierazgarri berau. Zeberion, 1713ra arte batzartuteko lekua Sautuolako ostua izan zan, eta gero, Zubialden dagoan San Roke eta San Martin ospitaleko ermitea. 30 urteetan hango eskolak erabili ebezan, 1746 urtean udaletxe egin barria erabili ahal izan eben arte.

Zeberion urteko batzar garrantzitsuena kontu emotea izaten zan. Han pielak legegintzaldiko

diru sarrerak eta gastuak zurtzen ebazan banan-banan. Eskribauak urteko kontuak jasoten hasten zanean, bere apunteetan herritarrai deitzean eutsen "herritarren zatirik osasuntsuena". Baina adierazpen honek ez eutsan erreferentziarik egiten herritarren osasunari, euren egoera ekonomikoari baino. Eta badago beste zirkunstantzia bat azpimarratzen dauana herritar aberatsen parte hartze politikoa. Piel errejidore kargua ez egoala edonoren eskura, Zeberioko ordezkariak 1802an jakinarazo eban moduan: "herri honetako ohorezko enpleguak emoten jakie bakarrik jaube diran herritarrai, eta ez maizter eta erreteruak".

Jürgen Lange
Erredakzioan itzulita

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Apirilaren 13tik 19ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 20tik 26ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Apirilaren 27tik maiatzaren 3ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Zeberio-Arriorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan 06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

Zeberio-Arriorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10, 11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arriorriaga-Zeberio-Artea

Arriorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzen da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Arriorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40, 12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioakoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

Babesleak:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Iñigo Iruarrizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Praktiketako ikaslea: Irati Urien.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Jon Ururtxu.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Esti Olibares, Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Mesias kirolzalea Igorreko Udalean

Kirola egiteko gogo badozu... itxun sofán eta etxon gogo kendu arte.

Hau da Igorreko Udaleko kirol arduradunak egiteko esaten deuskuena, kiroldegia 2015eko urtean 27 egunez zarratuta egongo dan egunetan.

Urte guztia ordaintzen dogu baina 11 hile soilik erabili ahal izango dogu kiroldegia 2015. urtean. Mundu guztia kirola egitea ona dala jakitun da Igorreko Udala izan ezik...

Bi dira gure eskakizun garrantzitsuenak. 1. urteko egun guztietan zabalduetea kiroldegia. 2. umeak igeriketan ikasteko beste igeri leku barri bat egitea. Batzartu gara alkarte eta kirol arduradunak, egon gara kirol eta kulturako batzarretan gure eskakizunak azaltzen, idea barriak proposatzen... baina ez deuskue jaramonik egiten. Esateko zagozie, egiteko gagoz da Udalaren lema. Gaur egungo politikarien lerroan...

Gure ustetan kiroldegia daroan enpresek udalari agintan deuto eta ez udalak enpreari, kiroldegiko arauetan heritarren aurretik enprearen onura ipiniz.

Ordenantzak aldatu beharko liratekela kiroldegia urte guztiko egunetan irekitzeko dinoe kirol arduradunak... badirudi Espainiako Konstituzioa bezain ikutu ezinak

dirala ordenantza horreek. Ba... aldatu egin beharko da herriak eskatzen badau ez? Gogoratu ehundaka sinadura eroan genduzala udaletxera gure eskariakaz bi aldiz atzen bost urteotan.

Udalak ez ditu gogoan ehundaka jubiladu (asko osagileak aginduta joaten dira), oporretan joan ezin diranak, ezta udan goizez lan egiten dabena. Gaur egun danok argi ikusten doguna eta danon agoan dabilana da kiroldegi arloan oso lan gitxi egiten dala Igorreko Udalean.

Igorreko eta Arratiako herritarrak kirola benetan atsegin dauan "Mesias" baten zain gagoz noz egongo dan Igorreko Udalean. Agian hurrengo 2015eko maiatzaren 24ko hauteskundeetan aurkituko dogu...

Kirolzaleok, aurtun Udal Hauteskundeak daukaguz, bozkatzan joan orduko mesedez irakurri ondo alderdiak edo plataformak kirol arloan zer opatuten dabena, ze gero lau urte luze egiten dira. Gogoratu, emoitza desbardina gura badozu, zerbait desbardina egin behar dozula.

Egoera hau danon artean aldatu danon artean ahal dogu. Ahal dogu. Kirola osasuna da eta gure osasuna defendatzeko prest gagoz politikari guztien gainetik.

J.A. URIARTE ETA IGORREKO KIROLDEGIKO BESTE ERABILITZAILE BATZUK

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Etxon



Etxon berbearen esangurak honeexek dira: bata, persona baten zain denporea emon edo beste bateri begira egon; eta bestea, atsedena edo deskantsua hartu (etxón, etxóin, itxón, agoskatuta). Batuaz, itxaron eta geratu esaten dira, hurrenez hurren. Bigarren esangureagaz sortutako berba-alkarketa interesgarria etxonleku da: atsedenaldira edo pausada bat egiteko lekua, esate baterako bijan danaren edo oinez dabilenaren geldialdia: "La Manga-ra bazoazie, Murtziako etxonlekuan alkartuko gara!".

ERETXIA

Euskal artisten egoerearen nire ikuspegia



INES MEDINA
Artista plastikoa

Arteagaz guztiz konprometiduta dagoan euskal artista lez, neure adierazpen plastiko eta teorikoa adierazten da urte luzeetako lan artistikoak, esperientziak eta hausnarketak garatutako konpromisoaren bitartez; beste egiteko eta pentsetako moduak errespetauz, baina neure pentsamentua be zorrotz errespetata.

Arte munduaren interesen harrisia -beste edozein mundutako interesak bezain konpleju eta sofistikuak- sustraituta eta nahastuta dagoz podere ekonomiko eta politikoen interesakaz. Podere honen barruan dago arlo kulturala.

Euskal artisten egoerea dala eta, neuk bizi izan dodan historiari begiratuta, esan beharra daukat, 70 hamarkadako atzenengo urteetan eta 80 hamarkadako lehenengotan, neure burua pribilegiaduntzat euki nebalako, gaur egungo Euskadiko errealdade artistikoa eregiten parte hartze zuzena eta aktiboa izan nebalako; baina guztiz dezeptionauta erakundeak egindako aukeraketa baztertzailaren aurrean, artista gizonzkoen obrak bisibilizatu eta garrantzi handiko lanpostuak euri emon eutseezalak.

Etsipena ez zan izan aukerea niretzat, eta ibilbidea bakarrik eta kanpoan egitea ebatzi neban. Lehenengotik Madrilera eta gero Estatu Batuetan. Baina unibersidadean bikain egindako eta gizartean leku barik geratutako neure kide izandako artista andrazko askoren inpotenziaren testigu izan nintzan. Hareetako batzuek, hamarkada batzuk beranduago, arte mundutzat jotzen dan honetan sartzea lortu eben. Beste asko ez ziran gehiagotan saiatu.

Bardintasunaren legea indarrean jarri zanetik, arte munduko poderedun erakundeak, derrigorrez eta behartuta, gaur egungo artista andrazko batzuen izenak apurka-apurka ezetutera emon

ten hasi dira. Elena Solatxik bere doktorego tesian gaur egungo 30 bat euskal artista andrazkoen metodologiak eta sormen kontzeptuak aztertu dauz.

Dana dala, gai bi dagoz argitu gurako neukezanak, arketipoak desegiteko neure gurari profesional handiak eraginda, eta neure eretxiz, artearen berezko helburuak nahastu eta desbideratzen dabizanak.

Bata da egiten dogun artearen identifikazio mugatzaile eta arriskutsua. Izan be, azoka, museo, erakunde eta abarreko beharrianakaz identifiketan dogu. Erakunde honek batez be, masa entretenimendu eta aisialdirako dira eta euren helburuak beharrian ekonomiko, politiko eta kulturarako asetzeta da. Euren lana da.

Baina artearen berezko funtzinoak beste bide batzuetatik doaz. Artearen berezko funtzinoak eza-gupenak eta personaren sensibilitate eta espiritua aberasten dabena edukietan ainguratzen dira; horregaitik adimena garrantzia handikotzat jotzen dot. Geure lana da.

Beharrezkoa be jotzen dot argitzea zein dan erakundeak erabilitako aukeraketa sistema, andrazko artista urriak bisibilizetako orduan.

Niretzat oso tristea da ikustea

aukeraketa egiturea guztiz matxista dala, hau da, poderearen baloreen parametroetatik egiten dala; eta ez, konzientzia ekartetik edo-eta personaren eta gizartearen hobekuntzatik. Akats bardinak egiten dira euskal artista gizonzkoak eta andrazkoak aukeratzen! Generoa ikutu barik dago baloreen kalidadeari jagokonean.

Gehiengo maskulinoa eta gixiengo femeninoa aukeratzeko metodologiak, lehentasun zerrenda espezifikoko bateri erantzuten deuto; batez be, diruaren poderearen jarraipen estrategikoaren puzzlea trinkotuteko. Heriotzeari beldurra baretzeko, hain zuzen.

Euskal artista andrazko moduan, euskal artista andrazkoen egoereak harrizta nauka; ez bisibilitate desbardintasunagaitik, ondino ez dalako sortu euskal artista andrazkoen berezko ekarpena baino. Aukeratu, baztertu edo ez gaitue aintzakotzat hartzean, alde bakarreko balore maskulinoak erabiliz, hau da, poderearen lilurak egituratutakoak.

Zertarako balio deusku euskal artista andrazkoari gure izen batzuk ezagun egiteak, geure espirituak ez badira agertzen?

Neure hausnarketa eta erantzukizunari jagokonean, lehentasuna dauka gure presentziaren kalidadeak, eta sano interesante eta aberasgarri ereisten deusat geure talentu artistikoak konpartidu eta isurtzeko modu barriak sortzeari. Igorreko Kultur Etxean egiten gabizan moduan.

Eta sortzean doguz, Lur planetan dagoan bizi-podererik handiena femeninoa dala konbenziduta. Baina ezin izan dogu publiko egin konbenzimendu hori, ezkutatu eta gorde egin dogu bizitza babesteko gure lan femeninoagaz bat egin da. Errealidadea da sorkuntzearen erreginak garala! Fikzinozkoa da barriz, baina badirudi bere momentuan komenigarria izan zala, behin behineko menpekotasuna, bigarren mailako podere estrategia femeninoakaz, inplikautakoak honeen gainean berba egin gura ez badabe be.

Erredakzinoan itzulia

BATZ 50 urte

BATZ, S. KOOP.
Torrea auzoa, 32
48.140 IGORRE (BIZKAIA)

IZAN GINAN...

...BAGARA ETA IZANGO GARA

Errealitate
Batzen gaitu

MONDRAGON

Telesailfilia

LUMATUTEN



XABIER LAMIKIZ

Telesailfilia

Telebista digitalaren garaiak ikusle espezializaua sortu dau. Bi edo hiru kate soilik ikusteko aukera egoanean (askorentzat pleistozenoaz egiten dot berba, badakit, baina pleistozeno hau atzoko gauzea da) eskeintzak agintzen eban, ez eskariak. Gauzak aldatzen hasi ziran ordainpeko kateak azaldu ziranean, baina erabateko eraldatzea mende honetako gauzea izan da, dobaneko zein ordainpeko hamaika kate digital ikusteko aukerea emon jakunean. Hasikeran ez genkian zer ikusi be, hain zan zabala eskeintza, hain laburrak egunak. Aldagailu automatikoari helduta ingelerazko berba barri bat ikasi genduan. "Zer ikusi zenduan bart?" "Zapping egin neban, zelan ez". Ezer ez ikusteko gai ez ginala aitorzea baino hobe zan ingeleskada bat botatea. Zeren, funtsean, hori zan gertatzen hasi zana: ez genkian zer egin hainbeste kategaz. Baina apurka-apurka ikusleonek portae-

rea egoera barrira egokitu da eta jada ez dogu hainbeste zapping egiten. Orain badakigu zer ikusi gura dogun eta, batez be, zer ez dogun ikusi gura. Egia esan, batzuk inoz baino argiago dabe telebista barik hobe bizi dirala.

Ni ez naz atzen eretxi horretakoa. Esango neuke kate eta programen arteko lehiak mesede egin deusala bai telebistari bai ikusleari. Kontua da zer ikusi gura dozun argi izan behar dozula. *Salvados* eta holangoak gustoko dozuzala? *Big Brother* akaso? Eguna futbola ikusten pasetako pazientzia daukazula? Soilik barriak dozuzala gogoko? Aukerak amaibakoak dira. Dana dala, nire uste apalean, XXI. mendean gagozanetik telebistaren ekarpen handiena telesailen hobekuntza nabarmena eta ugaltze ikaragarria izan da. Eta telesailakaz batera, halabeharrez, telesailfilia sortu da. Eleberriaren heriotzak eta zinemaren gainbehereak ez dau esan gura gizakiok fikzinoa ahaztu eta errealdadeari hurragotik heldu gura deusagunik. Egungo fikzionario onena telesailetan sortzean da. Aukeratzea besterik ez dago.

ZERTZEAN



UNAX IRAZABAL

Bila

Ideiak bertziklatzeko, berbak bilatzen ditut. Berbak. Ihes egiten didaten ele jostariak, behelaino lausoan ostontzen zaizkidan hitz herabeak, paper batetik bestera hegan doazen hitz biziak. Zatozte! Eta dantza dezala bolalumak zuen musikari jarraituz. Erduxie! Eta musari mailu bat eskatuko diot, gure artean zubia eraikiz, poema bat idatz dezadan.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak beginu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Ez Hollywood, ez Bollywood, Arratia da momentu honetan pelikulak filmetako gehien estimatzen dan parajea. Apirilaren 1ean, Irune Gurtubai igorretarrak ekoiztutako eta Ben Sharrock eskoziarrak zuzendutako *Pikadero* filma grabetan hasi ziran. Aktore lanetan, aktore ezagunak, Barbara Goenaga, Joseba Usabiaga, Lander Otaola edo Itziar Lazkano, beste batzuen artean. Igorre eta Bediako parajeak agertuko dira, antza, pelikulan.

Zeanuri inguruko landak eta baserriak, Roberto Castonek 2008an grabatutako *Ander* pelikulan agertu ziran. Pelikula honek hainbat sari jaso ebazan. Eta denporan atzera egin ezker, gehiago izango dira, duda barik, Arratian filmautako pelikulak.

Metraje txikietan, askotan pantailaratu da gure eskualdea, asko dira eta, gurean antolatuten diran film laburreko lehiaketak. Atzenengo urteetako film labur ezagunak aitatzearen, hor doguz Ibon Izaren *Txakile* Diman filmautakoa; Arratia Institutua Ibai Pujanaren *Egunon printzesa!* filman agertzen da; Arratiako basoak, *Baso Ahaztuak* dokumentalean...

Gehienetan gainera, estra moduan Arratiako jentea agertu izan da. Pantaila handian, fikzinozko istorioak, etxeko paisaje eta lagun arpegiak kontautu. Personalak, unibersala dalako.

Hau ez da Hollywood, ezta Bollywood, Arratia da!



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondarribia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bilakia
T. 94 631 50 39
Kalegora Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA Grupo Sasobide
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

LEMOA

Palestinan Giza Eskubideen Inguruko I. Ziklo Dokumentala

Erredakzioa

Lemoako Udalak eta Mundubat-ek Palestinan gertatzen diran Giza Eskubideen urraketak salatuteko dokumental ziklo bat antolatu dabe. Emonaldiak eguenetan izango dira, apirilaren 16an hasita eta maiatzaren 7ra arte, arrastiko zazpiretan Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

Lemoako Udala Giza Eskubideen gaia jorratuten dabil memoria historikoa dala eta, eta beste esparru batzuetan landu beharra be ikusi dabe. "Aspaldi ikusi genduan Lemoan kooperazioa eta alkartasuna landu beharra egoala eta memoria historikoaren gaigaz giza eskubideak lantzean gabizanez Palestinaren egoera jarri dogu abiapuntu moduan. Palestinaren inguruko gaia egunero dabil bolo-bolo telebistan baina benetakako egoera eta historia zein dan isladatzea gurako geunke esperientzia desbardinaren bitartez" azaldu deutso BEGITURI Mikel Garcia Lemoako Gazte Teknikariak.

Bost dokumental, lau saiotan

Ziklo honetan eskeiniko dan lehenengo dokumentala, 2010ean Manu Sanchez, Andres Dominguez eta Irene Sanchez-Prietok zuzendutako eta IPPAI etxeak ekoiztutako *Palestine (off the record)* dokumentala da. Bertan, Palestina eta Israelgo gizarte zibilaren ikuspegitik eragile eta aktibisten abotsak entzungo dira; komunikabideetan agertzen diranen aldean oso desbardinak. Israelgo okupazioaren oinarriak aztertu eta konponbide justu baten alde alternatiboak erakusten ditue, danen artean, bake justu eta iraunkorra lortzeako. Filma Eneko Gerrikabeitiak aurkeztuko dau. Gerrikabeitia Mundubat-eko zuzendariordea da eta 5 urtez erakundearen arduraduna izan

zan Palestinan.

Hurrengo saioan dokumental bi: Unai Aranzadi kazetariaren *Y sin embargo Al Quds* izenekoa eta Ekologistak Martxan-en *Puertas al Mar*. Lehenengoak palestinar herritarren zuzeneko testigantzea emoten dau, tokian tokiko jentearen bizimodua erakusten. Bigarrenak, Gazako arrantzaleen egoera erakusten dau. Saioa, Mohammed Farjallah-k, Hebron herriko palestinarrik aurkeztuko dau.

Apirilaren 30ean, *3 mujeres palestinas* izeneko dokumentala pantailaratuko dabe Lemoan. Produktzio palestino-israeldar honetan, edade desbardinak hiru andrak kontetan dabe euren aktibismo eta burruka politikoak. Amoun Sleem, Domari ijitoen komunitatearen kidea da eta euren zentroko zuzendaria, heziketa eta ekonomia independientea izan dagien burrukan dabilena. Khulood Badawi, politika aldetik izar distiratsua da eta bere arbasoen herrira eroango gaitu, Safuri herrira, non erbesteratua izan zan bere familia 1948an. Agertuten dan hirugarrena, Maha Nassar da, politika arloko aktibista beteranoa. Mundubat-eko Monika Alonsok aurkeztuko dau. Alonso Mundubat erakundearen Giza Eskubideen arduraduna da eta Palestinan urte bitan izan dana.

Atzen saioa, maiatzaren 7an izango da. Orduan David Segararren *Fuego sobre el Marmara* ikusteko aukerea egongo da. Film honetan, Flotilla izeneko itsasontziari egindako eraso kontetan da, bertan egon ziran aktibista eta kazetarien ikuspuntutik. Bizirik urtendako pertsonen konpromisoa eta biolentziaren zikloa azaltzen da. Malu Egiluz zeanuriztarrak aurkeztuko dau. Egiluz EHNE Bizkaiako kidea da eta Palestinan Nekazal Eskubideen Behaketaren delegazioan egon zan.

ARRATIA

Gure Esku Dagoren oihalak josiko ditue herriko plazetan

Bagilaren 21ean hautetsontzi erraldoiak egingo dauz

Gure Esku Dagok uriburuetan.

Erredakzioa

Hautetsontzi horreek norbere atxikimendu personalak alkarrerri josiz osotuko dira eta horretarako oihal zatiak erabiliko dabez. Oihal unidade bakoitzean 20 lagun atxikitzen dira, bakoitxak euro bana ordainduta, eta oihal horreek dabiz josten Arratian be. Herriz herri ehundutako sare horren joste eguna izan-

go da bagilekoa.

Herriko oihalak josteko Areatza, Lemoa, eta Zeanurin batuko dira hilaren 25ean ekimen honetan parte hartu gura dabenak.

Lemoa eta Bedia

Lemoako Plaza Gorrian Lemoa eta Bediako jentea batuko da 12:00etan, herri bi horreetako hamabost oihalak alkarregaz josteko.



Gure Esku Dagoren bagilaren 21eko ekimenaren aurkezpena.

DIMA

Mitologia sakon ezetuteko aukerea Diman

Erredakzioa

Jentilak eta mitologiako beste pertsonaje batzuk ezetutera emoteko, Jentilen gaineko erakusketea hilaren 13tik 24ra liburutegian eta ibilbide mitologikoa, kalejirea eta *Jentilak Diman* herri antzerkia izango dira hilaren 25ean.

Ibilbide mitologikoari Zamakolako zubian emongo jako hasikerea, arrastiko bost eta erdietan. Han batu eta mitologiagaz lotutako lekuak beste modu baten ikusteko aukerea izango dabe hurreratzin diranak. Bost geldialdi egingo dira azalpenakaz. Jentilzubitik, Baltzolako kobetara joango dira. Antzeppen baten bidez, sorginen inguruko sinesteen barri emon eta ipuin mitologikoak kontauko dabez koba barruan.

Gaubeko kalejiran eta herri antzerkian ehundaka dimoztarrek

hartuko dabe parte, herria girotu eta mitologia bizi arazoteko. Hamarretan hasiko da kalejirea Zu-

bimakurretik pelotalekura eta han, izango da *Jentilak Diman* herri antzerkia.



ARRATIA

Irakurleak argazkilari Korrikan

Irakurleak holan eskatuta, Korrikako argazki gehiago doaz oraingo zenbakian: batzuk, gehienak, irakurleak eurak ateratakoak eta BEGItura bialdutakoak; beste batzuk, aurrekoan atera barik geratu jakuzanak.



AEKkoak bidea marketan.

DIMA

Interneteko sarbide-hornitzailea aldatuteko izen emotea dago udaletxean

Erredakzinoa

Diman herrigunetik kanpo internet zerbitzua Euskaltelek emoten dau, Wimax teknologia erabiliz. Udal iturrien arabera, martxan ipini zanetik zerbitzuak ez dau eboluzinorik izan, eta momentu honetan oso abiadura txikia eskeintzen dau, leku batzuetara ez da ailegetan eta garestia da. Enpresa barri batek abiadura handiagoa eta prezio merkeagoan froga bat egitea eskeini dau. Sistema martxan ipinteko enpresek ekipamentuan inbersinoa egin behar dau eta bideragarria izan daiten, 40 persona behar dira zerbitzu barria kontratatuko. Hori dala eta, interneteko sarbide-hornitzailea aldatuteko interesa daukienai dei egiten deutse udalak euren datuak emon dagien udaletxean.



Arratia Institutuaren kilometroa.



Araluceko langileen kilometroa.



Ibon Izak bialdutako argazkia.



Korrika pasau zaneke arrastia Areatzan.



Ibon Izak bialdutako argazkia.



Kanaldudekoak Zeanurin.




Klara Astondoa.



Eskean Kristö Bilbon.



Zanpantzarrak Ubiden.



Igorren Zumba egiten.

ARRATIA

Indarkeria matxistearen 15 biktima atendidu ebazan igaz Mankomunidadeak



Indarkeria sexistearen kasuen % 10 baino ez dira azaleratzen.

Erredakzioa

Arratian, indarkeria matxista erabiliz, gizonak erasotutako 15 andra artatu ebazan Mankomunidadeak 2014ean. Bardintasun Zerbitzuko kalkuluen arabera, azaleratzen diran kasuak errealidadearen % 10 baino ez dira.

Egoera honeri aurre egiteko, Arratian, indarkeria matxistearen biktimai arretea hobea eskein-

tzeko Protokoloa dago. Hori dala eta, Ertzaintzak, Osakidetzak eta Mankomunidadeak alkarlanean egiten dabe behar. Martiaren 23an, barbarako, hiru erakundeok koordinetako eta indarkeria matxisteari erantzun bateratua emoteko alkartu ziran.

Baliabideak sendotzen

Mankomunidadeko Gizarte Zerbitzuak erasoia jasandako andren-

tzat prestatuko baliabideetara bideratzen dabe arretea eta laguntzea (laguntza psikologiko eta juridikoa, batez be), eta prozesuaren jarraipena egiten dabe. Esku hartze horren helburua andrazkoak indarkeria barik bizi ahal izatea da. Horretarako, beste neurri batzuen artean, kasu honeetarako eskuragarri dagozan telefono bidezko baliabideak sendotu dira: 24 orduz erabilgarri dagoan 900 840 111 telefonoa, eta Mankomunidadeko telefonoa: 94 631 17 17.

Indarkeria matxista ez da amaituko ez Arratian ez beste inon, gizon guztiak indarkeria erabilteari itxi arte, eta horretarako gizarte osoaren inplikazioa behar da. Horregaitik, Bardintasun Zerbitzuan, informazioaren, trebakuntzearen, koordinazioaren, prebentzioaren eta sensibilizazioaren esparruetan egiten dabe behar eskualdeko beste instituzio, alkarte eta herritarrek batera.

ZEANURI

Pirinio-Atlantikoetako Ardatza-Arroudeteko 40 kidek bisitatu dabe Olabarriko errotea

Jon Urutxurtu

Apirilaren 12an, domekan, Pirinio-Atlantikoetako (Frantzia) Ardatza-Arroudet Amis des Moulines (<http://www.ardatzaarroudet.asso.fr/>) alkarteko berrogeiren bat alkarkidek osatutako taldeak, Zeanuriko Olabarri errotea bisitatu eban.

Ardatza-Arroudet-en helburua Pirinio-Atlantikoetako erroten ondarea babestu, berreskuratu eta ezetutera emotea da. Alkarte hau Ipar Euskal Herriko eta Biarnoko hirurogei alkarkidek osatzen dabe, eurretatik 40 erroten jaubeak. 2004. urtean egin eban Zeanurira lehengo bisitea eta aurtentzen errepikatu egin dabe.

Ardatza-Arroudet alkarleak Olabarri errotea bisitatu egin eban txangoa, errota-gintzearen inguruan emoten da-

bilzan beste esperientzia batzuk ezetuteko, hartu-emonak mantenduteko eta ideak alkartrukatzeko Pujanatarrak —Olabarriko errotearen jaubeak— erakusten daben gogoaren testuinguruan kokatzen da.

Bestalde, bisitariak interes berezia azaldu eban Zeanurin orain

dala hamar urtetik Joko Alai eta Ipizki alkarleak, Olabarri eta Ibar gutxiko erroten jaubeak batera, antolatzen daben Erroten Ibilaldiaren gorabeherak ezetuteko.

Olabarri gidari lanak Fermin Pujanak egin ebazan errotearen eta errotearen ondoan dagozan olaren gune desbardinak erakutsiz.



AREATZA

Sanfilippo sindromearen ikerketarako laguntzea

Erredakzioa

Hilaren 18an, Sanfilippo sindromearen ikerketea bultzatzeko dirua batzeako, hainbat ekimen antolatu dira Areatzako The Quiet Corner tabernan. Eguerdian, 13:00etan lapiko solidarioa egingo dabe eta iluntzeko 20:00etatik aurrera kontzertuak egongo dira Corner-ean: Arratiako Lagunak abesbatzak, Kepa Junkera & Sorginak eta The Residence Irish Band taldeak eskeiniko dabez kontzertuok.

Dirua batzeako zozketa bat be egongo da, umeentzako kirol erropa

sorta bat, lurindegiko produktuak eta kafetera bat zozketatuko dira. Laguntza tiketak euro baten prezioan salgai dagoz.

Sanfilippo sindromea

Sanfilippo gaixotasun degeneratiboa da eta sindrome hau daukien gaixo asko nerabezaroan hilten dira. Ikerketea bultzatzeko, Stop Sanfilippo Fundazioa sortu zan. Bilboko familia baten hiru seme-alabak gaixotasun hau daukie, eta The Quiet Corner eta Areatzako herritarrek gaixotasunari sendabidea topatzen lagundu gura deutsee jai solidario honen bitartez.



ARRATIA

Gorbeia Gune Turistikoak deskontu txartela sortu dau

Erredakzioa

Txartel honegaz eskuratu daitezke zuzeneko deskontuak, dobaneko konsumizioak eta sarrerak 40 establezimentu baino gehiagotan. Aste Santuan ipini dabe indarrean eta Turismo bulego bietan eta Gorbeia ostatueta eskatu daitezke. Txartela ez da bakarrik turista edo bisitariarentzat, zonaldeko herritarrek be eskuratu leikie.

Gorbeia deskontu txartelak % 5etik % 30era bitarteko deskontuak eskeintzen ditu zonaldeko taberna, ostatu, esperientzia, abentura zentro eta produktore eta artisaunen hainbat establezimentutan.

Gorbeia lau museoetan sarrera doban da txartel honegaz.



AUZO ESKOLAK

Auzo eskolak

Arratian hamaika eta Zeberion auzo eskola bi zabaldu ziran 1921etik 1933ra.



Artaungo eskolako neska ikasleak (Dima). Argazkia: Arantzi Larrea Aurrekoetxearen bilduma pribadua

Jon Urutxurtu

Martiaren 17an zabaldu zan Bilbon, Bizkaiko Foru Liburutegian, *Bizkaiko auzo-ikastolak 1919-37. Hezkuntzaren eta kulturaren aldeko jarduketa erabakigarria* izenburua daroan erakusketea, eta bertan egongo da ikusgai bagilaren 30era arte. Auzo eskolak urruneko umeai hezkuntzarako sarbidea emoteko asmoz sortu zituan Bizkaiko Foru Aldundiak 1919tik aurrera eta 1937ra arte martxan egon ziran. Gerra ostean be jarraitu eben, baina Eskola Nazionala zalakoen barruan, hau da, helburuak eta funtzionamentua aldatuta. Arratian guztiz hamaika auzo eskola aurkitu daitezke Zeanurín, Diman, Igorren, Lemoan eta Bedian sakabanatuta eta Zeberion bi.

Educación y Escuelas de Barriada de Bizkaia ikerlanean Gregorio Arrien historialari pasiotarrak dinoanez, "Estaduan hezkuntza-eskeintza ez nahikoa osotzeko gogoaz, 1919ko zementiaren 26ko Gallanoren Mozinoan oinarrituz, Bizkaiko Foru Aldundiak sortutako ikastetxeak dira auzo eskolak. Ikastetxe honeekaz landa eremuan eta meategi guneeetan emoten zan kultura arloko atzerakuntzea zuzentzea bilatzen zan".

Holango eskola bat eukiteko honako baldintza honeek bete behar ziran: hamar familia baino gehiago bizitea auzunean, bertako etxeak hurren egoan eskolatik kilometro batera egotea, eta, azkenik, Udalak edota auzokideak lokala eskeintzea. Foru Aldundia,

Arratia aldean guztira hamaika auzo eskola altxau ziran; Diman hiru, Zeanurín lau, Igorren bat, Lemoan bi eta Bedian bat. Zeberion bi eskola zabaldu ziran



Santa Luziako (San Kristobal, Igorre) auzo eskolea.

ordea, eskolearen eraikuntzarako planoak egiteaz, eta maisu-mais-trez eta ikasteko materialez arduratzen zan.

Auzo eskola gehienak Udalak eregi baebezan be, batzuek auzokideen lanaren frutua izan ziran edota eraikuntzan parte hartu eben, dirua, eskubeharra, basoetako egurra, harrobietako harria, idiak eta burdiak jarritz. Beraz, herritarrek eskola honeei emondako laguntzea miresgarria izan zan.

Azpitarragarria da auzo eskolen arkitektura bitxia, ingurunera oso ondo egokitua eta baserrien estiloa jarraitzen ebana. Eraikinen diseinuaz Diego de Basterra arkitektoa arduratu zan, Euskal Herriko XX. gizaldiaren lehenengo erdialdeko arkitekturaren figura handienetako bat. Oro har, eskolea honako gune honeek osatzen eben: ikasgelea, komuna, materialen gelea eta sukalde-jangelea. Aitagarria da kanpoaldean eukien azuleju urdin eta zuriez osatutako errotulua: bertan Bizkaiko arma-

ria, Escuelas de Barrio de Vizcaya/Bizkaya'ren Auzo-ikastolak inskripzioa eta ikastetxeari esleitutako zenbakia azaltzen ziran.

Gorabeherak Ipiñaburuko auzo eskolan

Dana dala, arantzarik bako larrorarik ez dagoan lez, auzo eskolen sorreran be ez ziran falta izan tira-birak, istiluak eta haserreak. Eraikuntza udalen kontura izaten zanean ez zan arazorik sortzean, baina auzokideak dirua edo lana ipini behar ebenean, orduan euren arteko gorabeherak —sarritan beste kontu batzuetatik etozanak— azalera ateratzen ziran, eta tensinoak nagusi izaten ziran. Holango adibide bat izango litzateke Zeanuriko Ipiñaburu auzoan jazo.

Fabian Angoitia abadeak *Ipiña ta Ipiña'tarren barri* izenburupean 1958an argitaratu eban liburuxkan dinoanaren arabera, "Uribe'n eta Asterrie'n be baserri-eskolak egin zireala-ta, 1922'garren urtean

Ipiñeburu'tarrak be batzar andi bat egin euden Santiago'ko elepean euren auzotegien be eskolarik egingo zan ala ez ebazteko. Batzar orretan etxe-yaunek, zazpik ez besteak, ezetzer ayo eudien, da etzan ezer ebatzi. Azken baten, zazpi etze-yaunok beesten aldean gitxi ixean-arren, maister edo arrentadoreak alkartu zirean: oneik euren lanagaz laguntzen ba'eudien, etxagunek iminiko eudien dirue eskolagintzarako. Bitzuek emon euden ontzat erabagi au, euren neskatomutikoak eskolea auzotegien bertan eukitearren. Zazpi etzeyau ta euren errentadoreak gogatsu goatu eutsien, ba, eskolagiñen, ba beingoan amaitu zen lana. 1924'garrenoko martien auzotegiko andi ta txikientzako egun pozgarri baten asi zan bertan eskolea, Mari-Kurutx Gesta ta Mari-Carmen Gogeaskoetxea lelengo irakaslari zireala.

(...) Baye etzagunik geyenen umeak, gurasoak eskolea egi-



Obako auzo eskolea (Dima).



teko lagundu ez eudielako, ez eukien bertara ibilteko eskubiderik. Au be etzan tayu ona auzotegientzako; etzan ori auzoko guztien artean alkartasune yagoteko era ederra izelan atondu gauzek? Bizkai'ko Diputaziñoak, auzotegian bakea ta alkartasun ohea iminterarren, etzeguneri diruten an irazirikoa ordeaztuaz, eskolea erosi egin oan, eta guztientzako imini. Bai etzagunek eta bai errentadoreak, bakearen alderako ta auzo guztien onerako gogoti opetsi ta parkatu eudiezan eskolagiñen eurek egiñiko bearrrak. Alan lengo eskolea, batzuentzako bakarrik zana, guztientzako eskola biurtu zan".

11 auzo eskola Arratian eta 2 Zeberion

Lehenengo eskolak 1920-1921 ikasturtean jarri ziran martxan, 1925. urtea bete baino lehena-go 77 eskola eta 114 ikasgela abian ziran eta beste horrenbeste irakasle lanean; 1930erako 100 eskola eregita egozan, 1936an,

Gerra Zibilak eztanda egiten dauanean, 125 eskola zenbatu daitezke eta ikasle kopurua 6.321ekoa eta irakasleena 162koa zan. Arratia aldean guztira hamaika altxau ziran: Diman hiru: Obakoa, 1921ean, Indusikoa, 1923an, eta Artaungoa, 1927an; Zeanurin lau: Uribekoa 1921ean, Asterrriakoa, 1923an, Ipiñaburukoa, 1924an eta Alzustakoa, 1927an; Igorren bat: Santa Luziakoa (San Kristobal), 1922an; Lemoan bi: La Campakoa, 1925ean eta Arrañokoa, 1933an; eta Bedian bat: Ugartekoa, 1926an. Zeberion bi eskola zabaldu ziran: Santi Kurutzekoa, 1925ean eta Ermitabarrikoa, 1926an.

Ikasmaterialak, ikasleak eta irakasleak

Ikasteko material ugaria eta modernoa bialtzen eban Diputaziñoak, eta aitagarriak dira eskolentarako prestatu ziran euskerazko testuak, oinarritzko hezkuntzearen ikasgai desbardinak tratetan ebezanak. Ildo horretan zera esan behar da: hasikera baten bene-

tako euskal eskolak izan zirala, eta toki batzuetan material guztia euskerazkoa zan, baina handik gitxira aldakuntza garrantzitsuak izan ziran ikastetxe honeen orientazioan, Diputaziñoak ezarri eta abiatu arazotako hezkuntza politikearen ondorioz, horretan eragina eukan agintean egozaren joera politikoak.

Bestalde, heziketa helburuagaz antolatutako paseo eta urtekerak praktika arrunta ziran, batez be lehenengo urteetan. Gainera, nekazal gaiak lantzeako be aukera ezin hobea eskeintzen eban, eta esko-learn inguruan ortuak jartzen ziran.

Eskola adina 5 urtetik 14 urtera bitartekoa zan; beraz, umeak eskolan gitxienez 8 urte egin behar izaten ebezan, urte bi honako maila honeetako bakotxean: prestakuntzan, oinarritzkoan, maila ertainean eta goi-mailan. Eskola hutsegiteen inguruan esan daiteke asistentzia, oro har nahiko polita izaten bazan be, neguko eguraldi txarren eta baserriko lanetan parte hartu behar eragina nabaria izan zan.

Irakasleai jagokienez, aukeraketa zorrotz baten ondoren ziran hautatuak. Ereku euskaldunetan irakasleak euskeraz jakin behar eban, irakasle tresna moduan erabili ahal izateko. Irakaslegoaren artean eskola zereginetan ez ezik bestelako eginkizunetan be jarduten ebanak egozan: presan idazten ebanak edo beste gizarte eta kultura jarduera batzuetan, horreen artean ezagunena Julene de Azpeitia izan daiteke.

Gregorio Arrien historialariaren arabera, "auzo eskolak garrantzi izugarria izan eban; eurei esker analfabetismoa gitxitu egin zan; hezkuntza elebiduna ezartzean be oinarritzko papela jokatu eban, eta auzoak giza, gizarte eta kultura arloko hartu-emonen mundura zabaldu ziran. Oro har, eskola honeek kultura eta zibismoa sustatu eta bultzatu eban. Horretan guztian auzokideak, Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak zeresan

handia euki eban, azken erakunde honek 1920 eta 1936 urteen artean bederatzi miloe pezeta erabili eban, gehienak eskolen mantentmentura eta maisu-maistren ordaintetara zuzenduz".

Izaera aldaketea

Gerra Zibilean, 1937an nazionalak Bizkaia hartu ebenean, auzo eskolak lanean jarraitu eban, baina laster galdu eban jatorrizko nortasuna, 1938ko apirilaren Ordenaren ondorioz "Escuelas Nacionales de Barriada" bihurtu ziran Francok jarritako erregimen politikoaren kontrolpean geratuz. XX. mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrerantza, landa eremuko populazioaren beharakeagaz batera, auzo eskolak ateak zarratuz joan ziran.

Auzo eskola hareek eskola funtzioa galdu badabe be, gehienak gaur egun beste funtzio sozial garrantzitsu bat jokatzeko eraldatuak izan dira: auzokideen bilgune izateko.



Ermitabarriko auzo eskolea (Zeberio).

MENDIA

Zeanurin errotarik errota



Jon Urutxurtu

Maiatzaren 3rako prestatu dabe Joko Alai eta Ipizki Taldeak 2015eko Zeanuriko Erroten Ibilaldia. Antolatzaileen arabera, marxa honen helburuak dira "herritarri zein kanpotik hurreratzen diran bisitariak Zeanuri eta bere auzoak ezetutera emotea; eta Zeanuriaren historian errota izan daben garrantzia ezagutarazotea". Ez dira gitxi, izan be, herri honetan ezagutzen diran edota han-hemenka azaltzen diran errota edo erroten arrastoak, guztira hamazortzi, danak hidraulikoak. Ibilbidean zehar bederatziren ondotik igaroko dira ibiltariak eta bitan —Ibargutxin eta Olabarrin— sartu-urtena egin daiteke. Ibilbide bi dagoz aukeran: bata luzea, 18 kilometrokoa; eta

beste, laburragoa 12 kilometrokoa.

Ibargutxi

Errota bi bisitau leitez ibilbidean. Lehenengoa, Ibargutxi errota, Ipiñaburu kofradian dago. XIX. gizaldian burdinolea izan zan. Gaur egun harri bi badaukaz be, hiru harrigaz egin eban behar. Hirugarren harri hori garagarra eta pentsuak eihotzeko erabilten zan, eta Ibargutxiko etxea eta beste harri biak dagozan eraikinaren behealdean kokatzen zan, errotari bi horreek mobidu arazoten ebazan ura aprobetxetako. Hirugarren harriak 1950erantza itxi eutsan lan egiteari.

1945ean errotearen azpiko aldean turbina bat eta generadore bat jarri argindarra ekoizten hasi ziran Ibargutxin, eta 1978ra arte

gitxi gorabehera Altzua, Ipiñaburu eta Undurragako baseri batzuetara saltzean eben elektrizidada.

Ibargutxiko errotearen instalazioak guztiz zaharbarrituta dagoz, eta oraindino, noizean behin etxerako garia edo artoa eihotzen dabe jaubeak; horrez gainera, generadorearen bitartez etxerako argindarra be ekoizten dabe.

Azken erroteria Gabriel Larrazabal izan zan. Gaur egun Bitoriano, Satur eta M^e Jesus bere seme-alabak dira jaubeak, eta errotea zaharbarritzeaz eta inguru txukun mantentzeaz arduratzen diranak.

Olabarri

Bisitau leiteken beste errotea Olabarri da. Hau, Ibarguen kofradian dago. Jatorriz burdinolea izan zan eta Zeanuriko patronoa zan Arriola familiaren jaubetea. Pujanatarren aurretik Manterola familiak ustiatu eban, 1898ko zemendiarren 30ean, San Andres egunean, Isidro Pujana, errentari moduan, errotearen kargu egin zan arte. XX. gizaldiaren erdirantza Benigno Pujanak —Isidoren semeak— errotea erosi egin eutsen Arriolatarrak. Benignok errotari lanetan jardun eban 1995eko urri bigarrenaren 11n hil zan arte. Aitaren heriotzearen ostean, Fermin semeak errotearen zaharbarritze lanak heldu eutsen eta hor darrai gaur egun be jo eta ke apurka-apurka txukunduz.

Olabarriko erroteak hiru harri daukaz eta, betiko bezeroen eskariari erantzuteko lanean darraien Zeanuriko errota bakarra da. Benigno Pujana —herriko azken errotari

profesionala— hildakoan, bere alaba Ana Mari izan da lekukoa hartu dauana, azken ehun eta hamaika urteetan familiaren ogibidea izan dan ofizioa bizirik mantenduteko.

Errotearen ondoan burdinolearen arrastoak azaltzen dira eta gaur egun, hormak zaharbarritzen dabilz. Burdinolan erabilitako balantzea be errotan gordetzen da.

Errotagintzari buruzko gorabeherak ezetu gura dabezanak Olabarrira hurreratzea baino ez daukie, Pujana familiak bisita gidatuak antolatzen dauz eta.

Ibilbideari buruzko zehetasunak

Eguna: maiatzaren 3a, domekea. Izena emotea: 08:30etik aurrera, herriko plazan. 4€.

Urtekerea: 09:00etan.

Ibilbidea: 18 kilometro inguru; ibilbide laburra: 12 kilometro.

Jan-edana: Alkiberren jan-edana bananduko dau Gastronomía Cantabrica-k.

Errotak lanean: ibilaldiaren hasieran Ibargutxiko errota eta amaieran Olabarrikoan sartu-urtena egiteko aukerea izango dabe ibiltariak.

Antolatzaileak: Ipizki Taldea eta Joko Alai Alkartea.

Laguntzaileak: Gastronomía Cantabrica, Lankidego Lantalde, Zeanuriko Udala, Gorbeialde, Sagarna Txokoa, Zeanuriko Jubiladuen Taberna eta Arratiako Gurutze Gorria.

Informazio gehiago: www.ipizki.com edo telefono honetan: 653 016 117.

FUTBOLA

Arratia lehenengoa

Ainhoa Duñabeitia

Arratiako gizonetzkoen lehen taldea saikapenaren lidertzan ipini da Abadiñori irabazi ondoren. Denporaldi itzela beteten dabiz Arratiakoak eta saikapeneko lehenengo postuan dagoz 53 puntugaz. Atzen partiduko hiru puntuak etxera ekari ebezan Abadiñori 0 eta 3 irabazi ostean. Denporaldia amaituteko 6 partidu baino ez dira falta eta marxa honetan jarraitu ezker, Ohorezko Mailan jokatu dabe datorren denporaldian. Hurrengo neurketea etxean izango dabe, hirugarren postuan dagoan Uritarra taldearen kontra.

Gizonetzkoen bigarren taldea barriz, Arratia B, seigarren postuan dago 44 puntugaz. Apirilaren 11ko partidua Gemika Sporting B-ren kontra galdu egin eben. Arratia B 0 Gemika Sporting B 4 izan zan atzen emoitzea. Hurrengo neurketea etxetik kanpo jokatu dabe Morazaren kontra.

Arratiako andrazkoen taldea be ondo

Peña Athletic izan eben aurkari domekan, hilaren 12an. Bost gol egin ebazan Arratiak etxerako hiru puntuak lortuz. Taldea saikapeneko bosgarren postuan dago. Hurrengo partidua Urbieta zelaian izango dabe, atzenengo postuan dagoan Lantaron taldearen kontra, hilaren 19an izango da arrastiko 17:30ean.

| | | | |
|--|---|---|--|
| | J.B. Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa | Ikastola Arratia HI Tel.: 94 673 90 65 Artea | |
| | Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima | Arratia BHI Tel.: 94 673 62 37 Igorre | |
| | Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio | Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza | |
| | Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri | I. Zubizarreta HI Tel.: 94 673 60 22 Igorre | |

Okindegia
+ Ke... PAN
Etxean bertan egindako pastelak

IGORRE
Lehendakari Agirre 11
94 656 65 52
Sabino Arana 35
94 657 3898
AREATZA
Goiko kalea 8
94 608 90 47

ARA OTZ
Landegian o jabetzen!

RUGBY TABERNA

•Egin zaitetz bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

arratiko.zekorrak@gmail.com
<http://santxisme.blogspot.com/>

arratiako instalazioak s.l.

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE 17 - IGORRE

OPEL

Ibalgama, S. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEMOIA (Bizkaia)
Telf. 631 33 30 - 631 31 31
Fax 631 36 15

MENDIA

Ubideko Bira, laburra baino ez aurten

Erredakzioa

Aprilaren 19an izango da Ubideko Bira 2015. Aurten ez dira ibilbide bi aukeran egongo BFAk bira luzea egiteko baimena ukatu deuselako antolatzailei. Ibilbide laburra mantentzen da. Ubi-



deko plazatik 08:30ean urtego dira ibiltariak.

Ibilbideak 13,5 km. ditu eta 480 m.ko igoera. Ubidetik urtenda, Siskiño, Oketa, Lexaranda eta Atxurdinetik pasauko dira partaideak, Ubideko plazan ibilbidea amaituteko.

Izena emoteko modu bi dagoz. Aprilaren 19an bertan, 07:30ean emon daiteke izena, 10 euroko prezioan. Aldez aurretik, <http://ubidekobira.es.tl> webgunea erabili daiteke izena emoteko. Internet bidez egin ezker, 7 euro ordaindu behar dira.

Luzea bertan behera

Izen emotea hasita egoanean, bertan behera geratu zan ibilbide luzea. Holan azalduten dabe antolatzaileak gertatutakoa euren webgunean: "Gorbeia Parkeak

baimena emon euskun 2015eko urtailan bira laburra eta luzea egiteko. Martiaren 30ean jakinarazten deusku Bizkaiko Foru Aldundiko "baldintzapeko" bat bete beharko dogula. Bizkaiko Foru Aldundiak apirilaren 13an jakinarazoten deusku bira luzeko ibilbidea murriztu behar dogula. Antolatzaileak uste dogu murrizketa honeguz ez daukela merezidu bira luzea egitea eta bertan behera ixtea erabagi dogu".

Proiektutako ibilbide luzea 28 km.koa zan, 1.600 metroko igoereagaz. Ubide, Siskiño, Oketa, Lexaranda, Azero, Gorbeia, Egiriño, Arimekorta, Atxuri, Saldropo, Baztelarra, Upete, Kaltzada eta Ubide zan bertan behera geratu dan ibilbidea.

Sagardo dastaketea

Bira amaitutakoan ibiltariak kopautxo izango dabe indarrak berreskuratzeko. Saldea, txorizoa sagardotan eta sagardoa txotxetik dastatu ahal izango dira herriko plazan. Ubideko produktuen otzara bat be zozketatuko da partaideen artean.

URBAN DANCE

Zeanuri ez da Bronx, baina urban dance ikasteko aukerea dago

Erredakzioa

Aprilaren 19an, 16:00etan, urban dance ikasteko ordubete eta erdiko ikastaroa egingo dabe Zeanuriko frontoian. Funky, hip-hop eta dancehall ikasiko dabe 12 urtetik gorako jantzari hasibariak. Ekimen hau Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuten dau kale kulturaren nazinoarteko BreakOnStage jaialdiaren inguruan.

Aprilaren 25ean izango da Bilbao Arenan BreakOnStage jaialdiaren hamabosgarren edizioa eta Europako artistarik onenetakoak egongo dira bertan. Izan be, 60 taldetik 4 sailkatu dira Bilboko final handira. Beraz Urban Dance Lehiaketa inguruko talde onenak batzean ditu.

Jaialdia aurrez aurreko bateguz hasiko da, 1 vs 1 BreakOnStage Battleko finalagaz hain zuzen. Ondoren, Europako Breakdance Txapelketa, Bost Urban Dance Lehiaketa eta

kale kultura ikuskizunak. Amaitzeko sari banaketea eta kontzertuak egongo dira.

"BreakOnStage jaialdiak, gazteak kultura urbanoagazko daukien zaletasun hazkundearen sustatzaile eta testigu izaten jarraituten dau eta publiko gaztea arte eszenikoetara erakarten dau, aisialdi osasungarria eskeiniz" dinoe Foru Aldunditik.

Mari Jose Bayon eta Janire Dominguez Zeanurin

Zeanurin Mari Jose Bayon eta Janire Dominguez Bilboko Alehop taldekoak izango dira irakasle. Bayon jantza modernoko irakasle tituluduna da eta jazz-funk eta hip-hop landu ditu Bartzelona, Polonia, London, Frantzia eta Los Angelesen. Ale Hop taldeko koreografoa da Bayon eta Dominguez be talde horretako partaidea da. Hainbat lehiaketa irabazi ditue eta hip-hop irakasle beharretan dabiz.

GALAPAN

Iraia Garcia atleteagaz, hasi dira galapan andrazko taldeak

Erredakzioa

Igorreko Udalaren Bardintasun Sailaren ekimenez, apirilaren 14an hasi zan andra talde bat alkarregaz galapan egiten Iraia Garcia kros-lariaren gidaritzapean. Martitzetan 19:00etan eta eguenetan 18:00etan batzean dira kiroldegian. Taldea partaide barriak zabalik dago.

"Gu be bai runners" izeneko ekimen hau, galapan egin gura daben andrazkoak dago zuzenduta. Hiru modalidade eskeintzen dira: ibili, ibili eta galapan egin edo galapan egin. Atzenengo hau, galapan egiten esperientzia daukientzat da. Bigarren modalidadea, barriz,



Iraia Garcia.

hasibarrientzat, eta ibili eta galapan egiteko "transizioa" eskeintzen dau.

Saioak ordubeteoak dira: 40 minutu ariketea egiteko eta 20 minutu luzaketak egiteko. Kiroldegitik urtenda, Igorretik ibilbide desbardinak egingo ditue partaideak.

Iraia Garcia

Iraia Garciak igaz Bizkaiko Txapela lortu eban 3.000 metroko oztopolasterketan eta hirugarren egin eban bi milakoan, beste lorpen batzuen artean. "Runners" taldeai jagokienean, esperientzia dauka Garciak taldeok gidatzen; izan be, Zornotzan beste talde bat dauka martxan.

ERRUGBIA

Emoitza txarrak



Ainhoa Duñabeitia

Atzen bi astegoienetan emoitza txarrak lortu dabez Zekorrek. Etxetik kanpo jokaturako neurrak biak galdu dabez, esan beharra dago jokalariek faltan dagozala eta horrek kalte egin deusela gurea.

Hilaren 4an, atzeratuta geratu zan neurraketa jokatu eben Funes Rugby taldearen aurka. Irabazteko zorian ibili ziran baina ez eben garaipenik lortu ahal izan. Atzen emoitzea Funes Rugby 31, Arratikoko Zekorrek 26koa izan zan. Aprilaren 12an be galdu egin eben Zekorrek. Gernikan euki eben norvegiakoak. Partidu eskasa egin eben gureak, 11 jokalarigaz hasi eben partidua eta bigarren zatia hasi eta gitxira bertan behera geratu zan neurraketa jokalariek faltatutakoak. Zekorrek 8 jokalarik baino ez zituen berdegunean. Gernika RT B 29, Arratikoko Zekorrek 3 izan zan atzen emoitzea. Hilaren 18an arratiarrak Universidad Bilbao izango dabe aurrez aurre San Txime zelaian.

MOTORRAK

Barrero podiumean dimoztarrak



Pedro Gorospe podium-aren gorenean.

Irati Urien

Cross Country modalidadean, Miranda de Ebron lehiatu ziran arratiarrak hilaren 4an. Bi orduan eta 5,5 km.ko zirkuituan hamazortzi buelta eginda, lehenengo postua lortu eban Pedro Gorospe Beteranoetan. Iban Ibarra seigarren gelditu zan Senior hogeita hamar urtetik gorakoetan eta zazpigarren Josu Gorospe kategorian bardinean. Hogeta hiru urtetik beherakoetan hamahirugarren egin eban Jon Zuazok;

Asier Zugazaga oster, motorrak arazoren bat euki ebala eta, erretiratu egin behar izan zan hamaikagarren bueltan. Enduro modalidadean be podiuma zapaldu eben Arratiakoak Elgoibarran. Kasu honetan Josu Gorospe izan zan, hirugarren egin eban Senior Trofeo mailan Dimakoak. Senior Campeonato kategorian bederatzigarren gelditu zan Iban Ibarra eta hamazazpigarren Pedro Gorospe. Hurrengo zitea Kobaronen, Muskizen, izango da maiatzaren 2an.

JOSKINTZEA

Goi Mailako Joskintza Eskolea zabaldu dau Bilbon Barroeta jostkile lemoztarrak

Goi Mailako Joskintza Eskola aurkeztu eban Javier Barroeta jostkile lemoztarrak Bilbon, martiaren 26an. Eskola horren bitartez formakuntza espezializaua eta kualifikaua eskaini gura deutse modaren inguruan dabilzan eta euren gaitasunak garatu gura dabezan diseinatzaile eta profesionalai.



Javier Barroeta.

Jon Urutxurtu

Barroetak berak aurkezpen ekitaldian adierazo eban lez, "Eskola honen bidez nire esperientzia eta jostkintzaren munduan ipinten dodan pasinoa transmitidu gura deutset modaren munduan dabilzan gazteai".

Hiru ikastaro

Eskolak hiru ikastaro eskeintzen dauz: bi urte osokoak eta bat hiruhilabetekoa. Hiruhilabetekoa, Goi Mailako Joskintzara Sarrera izenburukoa, 72 ordukoa da, eta 2015eko maiatzean, bagilean eta garagarilean emongo da; ikastaro helburua gorpuzkera

desbardinatoko erropak sortzean eta manikian doitzen ikastea da.

Beste ikastaro biak urte osokoak dira, 236 ordukoak, eta 2015eko urri bigarrenetik 2016ko bagilera luzatuko dira. Bata, Emakumeen Joskintza Tradizionala da, eta bere helburua honako hau: betiko teknika tradizionalak erabiliz andrazkoen jakeak eta berokiak lantzen ikastea. Bestea, Modelajea, Fantasia eta Emaztegaiak da eta bere helburua: Goi Joskintzaren arlo desbardinatetan lan egiteko formakuntza espezializaua emotea; ikastaro honetan modako etxe handietan behar egiteko bideratu leike bere trebakuntzea ikasleak.

Ikastaroak Barroetaren estudioan

emongo dira, Bilboko General Concha kaleko 6. zenbakian, 1. ezkerrean.

Goi Mailako Joskintzara lotutako bizitza

Javier Barroeta Lemoan (Bizkaia) jaio zan. Lau urtez Pedro Rodriguezen ikaslea izan zan, honek Madrilan eukan tailerrean. Bilbora itzultzerakoan, hamar urtez Kamouraska izeneko narru-dendan egin eban behar arte eta sortze zuzendari moduan.

1989. urtean Goi Mailako Joskintza etxea sortu eban Bilbon. Bertan bere jantzi bildumak egin eta aurkeztu ez eze, bezeroak be ondo-ondo jagoten ditu. Holan, lehenengo puntadatik azkenengoraino, andrak desbardin sentiduta lortzean dau, bere diseinuak eurentzako pentsautako modelo eskusiboak dira eta.

Barroeta munduko moda etxe garrantzitsuenetako estaduko bezerorik onenetarikoa da, hori dala-eta Parisen eta Milanen egiten diran urtez urteko Goi Mailako Joskintza aurkezpenetara gonbidatzen dabe. Dior, Valentino eta Chanel, besteak beste, dira bisitetan dituan pasareletako batzuk.

Beste gauza batzuen artean zeremonia soinekoetan espezializau da; andragai, amabitxi eta konbidauen jantzietan, besteak beste. Une berean pret-a-porter erropa diseinu propioa egin eta goi mailako narrugintzan be lan egiten dau "hau, sentimentuz beterik, egiten dodan joste lan zehatz eta emozionala da" dino Barroetak.

Beste arlo batzuetan be hartzen dau parte jostkile lemoztarrak: Euskal Moda Elkartearen sortzaileetako bat da, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen bazkidea, hizlaria, UNEDeko laguntzailea, AMAVI-ko kolaboratzailea eta Bilbao International Art & Fashion-eko hainbat erakusketaren epaimahaikidea.

ebazan AKKBk igaz Angel Larrea irakaslearen eskutik. Lehenengoan, Arratiako aztamarik zaharrenen barri emon eban; bigarrenean, hilaren 23an, Erdi Aroa eta Aro Modernoa landuko dauz Larreak eta hirugarrenean, XVII. mendetik XX. mendera arteko ondarea aztertuko dau.



AKKB

Erdi Arotik Aro Modernora Angel Larrearen eskutik

Erredakzioa

Areatzako Kirol eta Kultur Batzordeak (AKKB), Arratiako ondarea ezetuteko bigarren berbaldia eta ibilbide bat antolatu dauz. Angel Larrea irakasleak, XI. mendetik, XVI. mendera arte Erdi Aroa eta Aro modernoaren gaineko berbaldia, egingo dau hilaren 23an

19:30ean Areatzako Udal Aretoan. Hurrengo domekan, hilaren 26an, berbaldiagaz lotutako ibilbide historikoa gidatuko dau Larreak, eta Arratian dagozan sasoi haretako arkitektura erlijiosoa, torretxeak eta baserri batzuk bisitatu dabez partaideak.

Arratiako ondarea ezetuteko hiru berbaldi eta ibilbide zikloa antolatu

ZAZTAPARRAK

Herriz herri Zaztatitiriteroakaz

Irati Urien

Atzenezan apirilaren 25 eta 26an ibiliko dira Zaztatitiriteroak Arratiako herrietatik zehar. Asti taldearen hogeigarren urteurrena atxaki, moztortuta, antzetzten, olgetan zein jantzan ikusiko doguz herriz herri. Apirilaren 25ean Zeanurin hasiko dabe ibilbidea 11:00etan eta 12:30ak arte egongo dira bertan. 12:30etik

14:00etara Areatzan, 16:30etik 18:00etara Zeberion eta 18:00etatik 19:30era Artean. Hurrengo egunean Arantzazun ekingo deutse bideari, 11:00etatik 12:30era. 12:30etik 14:00etara Igorren, 16:30etik 18:00etara Lemoan eta amaituteko 18:00etatik 19:30era Diman. Euria bada ibilbidea maiatzaren 2 eta 3ra atzeratuko dala jakinarazo dabe Zaztaparretako kideak.

LABURBIRA

Laburbirako filmak hilaren 17an Areatzan

Erredakzioa

Topaguneak antolatuten dauan Laburbira zirkuituko filmak ikusi ahal izango dira apirilaren 17an, arrastiko 19:30ean Udal Aretoan, BEGITU argitaratuten dauan Zertu Kultur Elkartearen eskutik.

Zortzi ikus-entzunezko labur eskeiniko dira Areatzan, 2013an eta 2014an sortutakoak, ordu eta lauren inguruko emonaldian. Koldo Almandozen *Hubert Le Blonen azken hegaldia*, Igone Arreitunandiaren *Ein land*, Kepa Errastiren *Aitona Mantangorria*, Asier Altunaren *Zela Trovke*, Asier Urbietaren *Arconada*, Kote Camachoren *Don Miguel*, Ixone Aroma, Aritz Lasarguren eta Asier Veraren *Zaunk!* eta Aitor Arregiren *Zarautzen erosi zuen* dira filmok. Hamabigarren urtea da Laburbira Arratiara datorrena.

2015
LABUR BIRA
FILM LABURREN XII. ZIRKUITUA
MARTXOAREN 4tik 28ra

Areatza, Areatzako Udal Aretoa
ECUNA: Aprilak 17 ORDUA: 19:30ean
ANTOLATZAILEA: Zertu Kultur Elkartea

topagunea.eus/laburbira

ANTZERKIA

Antzerki inprobisazino lehia Lasarte Aretan



Ismael Pereira igorretarra da antzezlaneko aktoreetako bat.

Erredakzioa

Aprilaren 24an, iluntzeko 21:00etan, Bizkaiko Antzerki Ikastegiko (BAI) ikasleak Igorreko Lasarte Aretora ekarriko dabe Fer Montayak zuzendutako *Match Impro* ikuskizuna. *Match Impro* inprobisazino laburren lehia da eta jokalaritza talde bi aurrez aurre neurtuko dira antzerki jokoa. Holan, BAI Ikastegiko ikasleak taula gainera igoko dira, ikusleak jarritako gaien inguruan inprobisatzen. Aktoreak euren trebezia frogatu beharko dabe

lan eszeniko laburrak di-da baten sortuz, eta ikusleen botoa lortzeko gaitasun guztiak baliatuko dira. Ikuskizunean publikoaren partaidetza beharrezkoa da eta emoitzeagaz pozik urtetan dira ikusleak.

Ismael Pereira

Taula gainean inprobisazino lanetan Ismael Pereira igorretarra egongo da. Pereira, telebistan, antzerkian edo Zumba irakasten ikusi ahal izan dogu. "Energia larregi daukat eta beti beharrez nabil irribarre batez" dino aktoreak.

LIBURUAREN EGUNA

Ipuin kontalariak eta liburuak doban, Liburuaren Nazinoarteko Egunean

Erredakzioa

Aprilaren 23an, Liburuaren Nazinoarteko Eguna da eta gure eremuko liburutegi batzuk ekitaldiak antolatu ditue eguna ospatu eta literaturzaletasuna zabaltzeko.

Bedian, batez be txikerrenak ospatuko dabe Liburuaren Eguna. Izan be, ipuin kontaketea eta txongiloak batzean dituan ikuskizuna egongo da ikusgai liburutegian. Rosa Martinez ipuin kontalariak *Hala bazan* izeneko ikuskizuna eskeiniko dau 3 eta 9 urte bitarteko umeentzat. Ekitaldia "familiarra da, gurasoak ume txikierakaz etorteko aukera eukiteko, baina edonor etorri daiteke" azaldu deutso BEGURI Bediako liburuzainak.

Diman be ipuin kontalaria egongo da, ume zein nagusientzat. Egun bi beranduago *Jentilak Diman* ikuskizuna izango danez herrian, euskal mitologiaren gaine-

ko erakusketea eta euskal mitologiaren inguruko ipuin kontaketea antolatu dabe han. Ipuinok, Txaxilipurdi taldeak kontauko ditu, 17:30ean liburutegian Liburuaren Egunean bertan. Erakusketea, berriz, hilaren 13tik 24ra izango da.

Liburuak doban Igorren

Igorren liburu azokea egingo dabe Kultur Etxeko plazan arrastiko laureatik zortzirak arte. Han, jentek liburutegiari egindako donazioetako liburuak eta euskal idazleen orri-markagailuak oparituko dira.

Igorreko liburutegiak Facebook-a dauka eta astean bitan helduan diran barrikuntzen barri emoten dabe bertan, liburu zein DVDen barri. Nagusientzako 700 DVD eta umeentzako 600 inguruk osotuten dabe bildumea. "Orain, apurka-apurka hasiko gara fonoteka bildumea egiten" dino Irupe Elepe Igorreko liburuzainak.

ERAKUSKETEAK



Vicente Hermosoren Erakusketea Igorreko Kultur Etxean

Erredakzioa

Vicente Hermosoren erakusketa "Artearen energia norbere obraren originaltasunera bideratu" titulupekoa ikusgai dago maiatzaren 4ra arte Igorreko Kultur Etxean. Inaugurazioa hilaren 17an 20:00etan izango da.

"Arteak, eroaleak bideratutako energia bezala ulertuta, norbera eta lanaren arteko alkarizketea eragiten dau, eta lanaren gauzatze agerikoari bidea emoten deutso, identitatea bere unidatzen eta lanen batasun finalean hartuz, eta subkontzienteari eta kasualidadeari bidea emonaz, lanari berari identitatea emongo deutsee" dino artistek.

DUNBA

Gerra Zibilak ia 80 urte

Zubialde eskolako goiko ziklokoak Piroteknia proiektua lantzean gabizala, gerrak agertu dira, eta batez be 1936-39ko gerrea, Gerra Zibila deritxana.

Zubialde eskolako goiko zikloko ikasleak

Gogorapena, memoria historikoa, bizipenak, aztarnak, geratzen jakuzan nagusiak... hori guztiari landu behar izango dogu.

Gaur egun Lehenengo Munduko Gerrearen inguruan dokumental, artikulua... asko agertu dira atzen urteotan, hasi zala 100 urte diralako. Baina atzen urteotan be Gerra Zibilaren gorabeheran, asko agertuten dira. Urteurrenak ospatu, aztarnak berreskuratu, hildakoak bilatu, antzezpen moduko batzuk

egin, Lemoatzen adibidez, orain ez denpora luze... Eta zergaitik hori?

Gerra irabazi ebenak omenaldiak egin eutseezan euren hildakoiak eta 40-60 urte luzeetan isilpean izan dabez gerra galdu ebezanak. Jentearen gogoaren bidetik Memoria Historikaren legea agertu da.

Oraindino gure mendietan eta bideetan hildako asko dago eta topatzen gabiz.

Hildakoak ez ezik beste aztama asko egon badago inguruan. Upon lubakiak aurkitu daitezke. Gudariak eta milizianoak erabiltzen ebezan arerioa etorten ikusteko baina



ikusiak ez izateko. Batetik bestera egindako bideak, tunelak eta abar. Hormigoizko bunkerrak be ikusi daitezke. Ugaokoak bisitetako prestatuta dagoz: garbituta eta barritzatuta.

Gerrako ekintzarik ezagunena Gemikako bonbardaketea izan zan. Alemanak (Kondor Legioa) bonbardatu eben Gemika. Beharbada hurrengo gerretan haize armak zelan erabili esperimendu egin eben gure lurretan. Heinkel,

Junker, Messerschmidt motatako hegazkinen izenak askoren gogorapenetan dagoz.

Gemikakoa ezagunena izan arren beste toki askotan jaurti ebezan bonbak, Durango, Otxandio... Zeberion bertan be bai. Garai horretan hegazkin alemandarra jo eta Arbildun jausi zan.

Bildurraren bildurrez jentea ahal eban leketan ostonduten zan: basoan, bedar metatan, zubipean, eta uri handiagotan aterpetan.



Askok etxeak eta baserriak itxi ebezan Billbora joateko.

Proiektuari lotuta persona nagusiai alkarizketak egin deutseguz, zelan bizi izan eben gerrea, zenbat urte ebezan, parte hartu ete eben soldadu edo gazteegiak ete ziran, gudari edo milizianorik ezetu ebezan... 80 urte pasau dira gerrea hasi zanetik, beraz persona honeek oso nagusiak dira, gogorapen zuzenak izatekotan 85 urtetik gorakoak. Gazteagoak euren gurasoai entzundakoa kontetan deuskue.

Gitxi dagoz bizirik eta denporea aurrera joan ahala gitxiago.

Gure historiaz jakin gura badogu aprobetxau behar izango doguz orain.

AGENDEA

APRILAK 16

BEDIA

19:00etan, Bediako Irakurle Kluba. Inigo Aranbarri *Apirila* (Susa, 2014).

DIMA

Hilaren 24ra arte, Jentilen gaineko erakusketea Liburutegian.

IGORRE

19:00etan, Asier Ipiñazarren berbaldia "Autodeterminazioa & erabakitze eskubidea" Kultur Etxean. Orreagak antolatuta.

Vicente Hermosoren erakusketea Kultur Etxean maiatzaren 4ra arte.

LEMOA

19:00etan, *Palestine (off the record)* dokumentala eta Eneko Gerrikabeitiagaz solasaldia. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

APRILAK 17

AREATZA

19:30ean Laburbira euskerazko film laburren emonaldia. Zertuk antolatuta Udal Aretoan.

IGORRE

20:00etan, Vicente Hermosoren erakusketearen inaugurazioa. Kultur Etxean.

LEMOA

19:00etan, Ganzabalek antolatuta *Stretching* saioa. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

APRILAK 18

AREATZA

20:00etan Sanfilippo gaixotasuna dala eta kontzertu solidarioa, Arratiako Lagunak abesbatza, Kepa Junkera & Sorginak eta Residence Irish Band. Zozketea. The Quiet Comer-en.

IGORRE

22:00etan, zinea *50 sombras de Grey* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etan, Zuerako kartzelara joateko autobusa. Gaztetxe azpiko parkingean.

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, urtekerea sagardotegira. Hernialde/Herniozabal (1.011 m).

ZEANURI

Parketeak antolatuta, umeentzako ginkana

didaktikoa Saldropon.

APRILAK 19

DIMA

12:30ean, Diman Etxean Gure Doguz-en mahaia: Sarekide egiteko aukerea, dispersioaren liburu zuria eskuragai, Sareko materiala salgai, Diman Etxean Gure Doguz taldearen Gure Esku dago oihalean sinatuteko aukerea. Plazan.

LEMOA

11:00etan, Igitie baseritarren azokea Elizondon. 12:00etan, musika; 12:30ean, umeentzako egur jokoak eta Karbie Gaztetxean saldea eta pintxoak.

IGORRE

17:00etan, zinea *Los caballeros del Zodiaco*. 19:30ean, *50 sombras de Grey*. Lasarte Aretoan.

UBIDE

07:30ean, izen emotea Ubideko Biran. 08:30ean, urtekerea. Plazan.

ZEANURI

16:00etan, hasibarrientzako urban dance ikastaroa: urban Dance, funky, hip-hop, dancehall. 12 urtetik gorakoentzat Zeanuriko frontoian.

APRILAK 20

IGORRE

16:45ean, andren arteko topaketa interkulturalak.

APRILAK 21

AREATZA

19:00etan, Euskal Jaia antolatuteko batzarra.

APRILAK 23

AREATZA

19:30ean, Angel Larrearen berbaldia "Arratiako historiaren 2. atala" Udal Aretoan. AKKBK antolatuta.

DIMA

17:30ean, ipuin kontaketea euskal mitologiaren

inguruan Txabilipurdi taldearen eskutik. Liburutegian.

BEDIA

17:30ean, Rosa Martinez ipuin kontalariak *Hala bazan*. 3-9 urte bitarteko umeentzat. Liburutegian.

IGORRE

16:00-20:00 Liburu Azoka Kultur Etxeko plazan. Liburuak eta orri-markagailuak oparitutako dira.

19:30ean, Euskera Zuzterretik-ek mintzantzen programaren aurkezpena Lasarte Aretoan.

LEMOA

Narrazio Lehiaketan lanak entregetako azken eguna.

19:00etan, *Y sin embargo, Al Quds* eta *Puertas al mar* dokumentalak. Mohamed Farjallah-gaz solasaldia. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

APRILAK 24

DIMA

17:30ean, Bizkaiko bonberuen berbaldia "Suteen prebenzioa". Jubiladuen lokalean.

IGORRE

21:00etan, Bizkaiko Antzerki Ikastegiak *Match Impro* ikuskizuna Lasarte Aretoan.

IGORRE/LEMOA/ZEBERIO

19:30ean, atzen barikua preso eta errepresaliaduen aldeko kontzentrazioa.

APRILAK 25

AREATZA

Lamino Mendi Taldearen mendi urtekerea. Urtemondo eta Gainzorrotz Artaunetik.

ARRATIA

Zaztatitireroak Arratiako herrietatik (eguraldi ona bada). Ikusi egitaraua 12. orrialdean.

Gure Esku Dago, Joskile Eguna. Ikusi 5. orrialdea.

DIMA

17:30ean, *Jentilak Diman*. Ibilaldi mitologikoa Zamakolako zubian hasita; 22:00etan, Kalejireta Zubimakurretik pelotalekura eta ikuskizuna pelotalekuan.

IGORRE

22:00etan, zinea *Samba* Lasarte Aretoan.

LEMOA

Break on Stage jaialdira urtekerea. Gaztelekutik.

APRILAK 26

ARRATIA

Zaztatitireroak Arratiako herrietatik (eguraldi ona

bada). Ikusi egitaraua 12. orrialdean.

AREATZA

Angel Larreagaz ibilbidea. AKKBK antolatuta.

DIMA

10:00etan, Ganadu eta Artisau Azokea. Moxal pintxoak egongo dira.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Pim Pom* (euskeraz). 19:30ean, zinea *Samba* Lasarte Aretoan.

LEMOA

09:00etan mendi martxa solidarioa Lemoatik "Tomasa eta Iñaki Lemoan gure doguz!". 12:00etan pikoteoa. Bagabiz Badatoz-ek antolatuta.

ZEBERIO

11:30ean, Nafarroa Eguna ospatuko da Untzeta Pikuko tontorrean. 12:00etan, txalapartea, albokea eta aureskua Nafar Ekimenaren eskutik. Ondoren, bazkaria Zeberion.

20:00etan, zinea *Las horas* udaletxeko bigarren solairuan. Sarrera libre eta doban.

APRILAK 27

IGORRE

16:45ean, andren arteko topaketa interkulturalak.

APRILAK 28

LEMOA

16:30ean, "Altxoraren bila", guraso eta umeentzako ekintza. Eskolako patioan.

APRILAK 30

LEMOA

19:00etan, *3 mujeres palestinas* dokumentala. Monika Alonsogaz solasaldia. Jubiladuen Etxean.

MAIATZAK 1

AREATZA

Lamino Mendi Taldeak antolatuta, hilaren 3ra arte, Pirineotara, Val D'Arnera.

MAIATZAK 2

IGORRE

22:00etan, zinea.

MAIATZAK 3

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea. 19:30ean, zinea.

ZEANURI

Zeanuriko X. Erroten Ibilaldia. 08:30ean, izen emotea plazan. 09:00etan urtekerea.



Urteurren jaia Kiñun

Apirilaren 17an *Marx Attacks* antzezlan ikusteko aukerea egongo da Kiñun Galdakaoko antzerki taldearen eskutik. Gaztetxe baten aterrizetan dauan es-tralurtar bat ei da Marx, eta gaztetxe egunerokotasuneko *sketch* batzuk ikusi ahal izango dira lan honetan. Arrastiko 19:30ean izango da ikuskizuna.

Apirilaren 25ean osteria Kiñun Gaztetxearen lehenengo urteurrena ospatuko da. Horretarako egun osoko egitaraua prestau dabe gazteak. 15:00etan bazkaria egingo da Gaztetxean bertan, sei euroen truke. Begetarianoentzat be egongo da jatekoa; eta tiketak, Kukuma, Herriko, Gau Lora zein Txaparronean erosi ahal izango dira. 18:00etan rallypoteo musikatu egongo da Igorretik zehar, jokoakaz poteo bitartean. Eguna amaituteko bi musika talde ezagun: Arkada Social eta Iheskide. Kontzertuok 22:30ean hasiko dira eta bost euro balio dauz sarrereak.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

PISUA SALGAI

Zeanurin, plazan, duplex-a salgai. 100m², hiru logela, komun bi, trastelekua eta garajea. Eraikin barria. Interesauta egon ezker, 686 495 724 telefonora deitu.

PISUA SALGAI

Pisua salgai Artean. Bizitza sartzeko moduan. Eguzkitsua. Deitu 665 739 936 telefonora.

DANERIK

HAUR ZAINZA EREMU ZABALEAN

Haur zaintza edo etxeko beharrak egiteko laguntza behar dozu? ordu pare bat, egun osoako edo-eta hile baterako? Jaunartze, urtebetetze, ezkontza, batzarretan... ekintzak egiten doguz (globoflexia, eskulanak...). Deitu konpromiso barik 639 293 539 Eider.

ETXEAK EDO GELAK ALOKAIRUAN

Conil de la Fronteran etxeak zein gelak alokatzen dira. 647 126 074 Rosario.

INGELES ESKOLAK

Ingeles irakasleak eskola partikularrak

emoten ditu. Cambridgeko "Certificate of Proficiency in English" titulua daukat eta Erresuma Batuan bizi izan naz 4 urtez. Irune 615 708 238.

BASERRIRAKO LAGUN BILA

Baserrian biziteko lagun bila nabil (Zeberio). Bilbotik ordu erdira eta herrigunetik (denda, mediku, taberna...) 10 minutura oinez. 200 euro personako, gastuak barne. Interesatuak deitu 687 338 515 telefonora.

PISUA ALOKATZEN DA

3 gela, bainu bi, saloi handia. Altxariak ditu. 629 716 764.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:


1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *50 sombras de Grey* filmarako.

Juan Totorika (Areatza)
Gontzal Mendibil (Zeanuri)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Match Impro* antzezlanerako.

Pedro Jose Ormazabal (Areatza)
Marina Urigoitia (Artea)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 13

urte eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 1 | | | | | | | |
| 2 | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | |

EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Sartu. 2.- Arunt, normal. Bat erromatar. 3.- Legor. Zidarra. 4.- Letra bat. Lasaitasuna. 5.- Amerizioa. Konsonante bat. Indioa. 6.- Hizkuntza bat. Bostehun erromatar. 7.- Musika nota. Otzara. 8.- Bigarren bokala. Bizkor. 9.- Gizonezkoen izena.

GOITIK BEHERA

1.- Itsasondo. 2.- Urun egosiz egiten dan jateko ore. Krabelin. Boroa. 3.- Bikotx. Konsonantea. Zer. 4.- Zerikus. 5.- Musika nota. Erdiko bokala. Gura. 6.- Uranioa. Gasteiz uriko kanpo herria. Bibliako andrazkoa. 7.- Domekero.

| | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| O | I | N | E | B | 6 | S | E | N | V | A | Z | |
| R | H | U | Z | E | 8 | V | I | N | H | I | V | |
| E | R | V | Z | O | 7 | V | I | N | H | I | V | |
| D | N | I | V | L | 9 | V | I | N | H | I | V | |
| N | I | K | W | 5 | V | I | N | H | I | V | | |
| V | L | S | I | L | 4 | V | I | N | H | I | V | |
| G | K | U | S | I | 3 | V | I | N | H | I | V | |
| I | O | H | I | O | 2 | V | I | N | H | I | V | |
| I | K | A | B | I | D | 1 | V | I | N | H | I | V |
| U | 7 | 5 | 4 | 5 | 6 | V | I | N | H | I | V | |

Topau umeen urtebetetzeetan normalean egoten diran gauzen zazpi izen.

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Z | O | R | O | A | B | E | R | A | Z |
| A | E | T | A | L | O | K | O | X | T |
| L | I | M | U | S | I | M | A | R | O |
| D | U | K | A | I | L | E | G | I | T |
| E | L | A | G | U | N | A | K | U | R |
| A | Z | I | L | O | A | K | I | M | A |
| O | L | R | T | A | Z | U | A | E | B |
| S | A | E | K | U | N | O | A | K | I |
| G | E | K | T | X | I | Z | K | A | N |
| E | T | Z | U | S | T | E | R | I | L |
| R | A | I | K | O | A | L | A | R | A |
| I | S | B | A | L | E | P | L | A | R |
| T | X | I | Z | K | E | M | U | P | A |
| A | T | X | A | U | T | E | R | O | P |
| I | Z | T | J | A | N | A | R | I | A |

AKI MI KO

Aitziber



Igorren ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

AKESOLO, S.A.
GARRAIOAK, NEUMATIDAK ETA ZERBITZUAK
Garbe, 29 Telefono: 94 673 60 14 IGORRE-SIZKAL

Orrie
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA
L. Agirre, 2.
48140 Igorre (Bizkaia) Telefono: 94 673 64 25

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

AGRESOREAK
basola Emaldi
Abokatuak
620. 57.86.04
aslerabasola@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Telefono 649 86 95 36

Los Chopos
neurri egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 33 (Nigar) Tel.: 94 430 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ
Baimenak: A1, A, B77, B
Lehendakari Agirre 31
Telefono: 94 673 71 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@vodafone.net

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTRATUEN
ONDASUN HIGEEZEN
ASIGURUETAN
Bilbao Arana, 3. Floor. 94 673 71 41 - Fax: 94 673 94 41 - 48140 IGORRE

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARO

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

KIRRU ILEAPANDEGIA SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 631 92 06

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta euskaraz zein erdaraz
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80
e-por: urroz@arratia.net

JENTILAK DIMAN IKUSKIZUNEKO LANTALDEA

**Gotzon Aurrekoetxea:
"Gure kultura tradizionala
plazaratzea da helburua"**

Diman prestatzen dabizan *Jentilak Diman* Ikuskizunak besteak beste herri antzerki bat daukala ikustean eurengana hurreratu gara era honetako ekimen batek daukan konplejutasuna erakusteko. Talde eratzailako kideak alkarrizketa bat izan dogu, ikuskizunaren alderdi desbardinai buruz.

BEGITU**Edurne, jantzien arduraduna zara, zer izan da gaxena zuretzat?**

Edurne Atutxa: Ni erropak neur-tuten eta josten ohituta nago eta ez daukat arazorik, baina kasu honetan ez da erropea egitea bakarrik izan, erropak diseinatu egin behar izan dira eta gero gaxena karakterizazioa izan da niretzat, personaje baxen karakterizazioa. Esate baterako Basajaun personajeak ardi-narrua dauka erropa moduan, baina pelukea, bizarra, oinetakoak, eskuak mol-datu behar izan jakoz eta horrek buruhauste batzuk ekarri deustaz.

Narruak zelan lortu dozeuz?

E.A.: Naruena historia luzea da. Batzuk itxi egin deuskuez, Nafarroako herri baten erabilten dabizan narruak dira; onak eta ondo jamondakoak dira, kurtidutakoak. Beste batzuk ardiak hil eta segiduan ekarritakoak: komeriak egin doguz narruok garbitu eta patxadaztuteko; behar handia egin behar izan dogu soinean jantzeko moduan ipinteko, baina lortu dogu azkenean.

Amaia, zu dekorazioaren arduraduna zara, zein izan da zure motibazioa ekimen honetan parte hartzeako?

Amaia Goti: Egia esan, Gotzonek proposatu eustanean ilusioa sortu jatan. Asmo hau ez da oraingoa, orain dala 20 urte

(Dima Txumuluxueta Kultur eta Kirol Alkartea sortu genduan) ja gure buruetan baegoan idea hau, ikuskizunaren aurkezpenean esan genduan legez. Nik etxean gordeten dodaz oraindino orduko bozeto batzuk. Urte askotan geldi egon da, eta Gotzonek deitu ninduan, lehen esan legez, ilusionatu egin nintzan eta oso pozik hartu neban berak proposatu eustan beharra. Nire beharra dekorazioaren arduratzea izan da, eskenatokia eta kartelak diseinatzea eta ahal danik eta patxada onenean egiten ahalegindu naz.

Zer da jentilen irudien deigarriena zure ustez?

A.G.: Tamainua eta basati itxurea, zalantza barik. Jentila beti amestu dogu izate handi legez eta aldi berean basati itxura guztiagaz. Mitoak bizirauteko behar dan irudia da hau eta erakargarri bihurtu behar dogu etorkizunean be eza-gutua izan daiten.

Nagore Bernaola eta Arantxa Petralanda organizazio parte garrantzitsua dira, zein izan da zuen zeregina?

N.B.: Batzarretan hartzean izan diran ebatziak ejekutatea izan da gure zeregina, baimenak, jentearen parte hartzea bultzatzea, laguntzak lortzea, gestioak egitea... holango ekimen batek gauza asko izaten ditu lotu beharrekoak. Hori izan da gure zeregina.

Zein izan da buruhausterik handiena?

Arantxa Petralanda: Jente kopuru handiagaz gauza askotarako hartu-emonak izatea. Batzuetan diru-laguntza eske, besteetan parte hartzeako konbiteagaz, hurrengoan laguntza-bonoak bananduten, deiak egiten... behar diferente asko, eta batzuk egun berean. Holango montaje handietako ejekuzioa gatxa izaten da, eskarmentu handia hartu dogu, nahiz aurretik be ohituta egon garan gauzak organizetan.

Maitane, zuk jantzen ardurea daukazu, zelan sortu da jantza sartzea ikuskizunean?

Maitane Iza: Gotzonen idea izan zan. Ikuskizuna ez zan herri-antzerkira mugatu behar, herri

Guganaino heldu diran kontu mitologiko guztiak zergaitik ez erabili eta ikuskizun bat prestatu



guztia ipini behar zan "jantzan", eta lortu da. Antzerkiaren aktoen artean jantzak sartzea proposatu eban, eta nik gure jantza taldean idea hori aurkeztu nebanean mundu guztia ados egoan parte hartzeako. Jantza motak be proposamenean etorri ziran; hiru jantza behar ziran, baxotxa molde desbardinatetako. Eta halan gabiz jo eta ke entrenetan, ensaioak eta ensaioak egiten.

Zer ekarri dau jantza taldera ikuskizunean parte hartzeako konbiteak?

M.I.: Ekarpen garrantzitsuen motibazioa da, zalantza barik. Afizino handia dago gure artean jantzak ikasteko, baina proposamena plazaratu genduan pilak ipini genduzan, giroa asko berotu zan eta motibatuago sentidu ginan.

Jon, zu akustika eta elektronikaren arduraduna zara, zein izan da zure parte hartzea ikuskizunean?

Jon Loiola: Alde batetik esan behar dot, holango ikuskizunak behar-beharrezkoak dirala herri txikiak izan arren. Badakit asko kostetan dirana, bai diruz eta bai esfortuz, baina herri txikiak bizitasuna emotea gura badogu, herriaren partizipazioa bultzatu behar da eta oingoan lortu dogu. Egia esan ausardia behar da, atzen baten abentura kultural bat dalako. Proposamena jaso nebanean guztiz identifikatu nintzan eta ilusinoz beterik nabil

organizazioan. Nire zeregina ikuskizunaren kalidade akustiko eta elektrikoa bermatzea da.

Zelan lortu kalidade hori?

J.L.: Ez da erreza, frontoiak gehienetan akustikoki arazo asko ekarten dabezalako. Baina esperientzia onak be badaukaguz eta horreetatik edanez lortuko dogula etxoten dot.

Azkenik Gotzon, danen koordinatzailea, zer dala eta Jentilai buruzko ikuskizuna?

Gotzon Aurrekoetxea: Amaiak esan dauan legez, idea aspaldikoa da. Hor daukagu Jentilazubi paisaje ezin ederrago bat, alboan Baltzola kobak ipuin mitologiko ugariaren gunea, sorgin-lekuak... guganaino heldu diran kontu mitologiko guztiak zergaitik ez erabili eta ikuskizun bat prestatu, ostekoentzat be ikasbide izan daiten? Gure kultura aberastasunak modu erakargarrian plazaratzea da ikuskizunaren helburua. Gure historia, gure pentsamendu tradizionala, gure kultura tradizionala plazaratzea.

Ideatik proiektura bide luzea dago, ezta?

G.A.: Oso luzea, baina erakargarria. Hasikera-hasikeran taldea sortu zanean behin eta barriro errepikatzen genduan idea "disfrutatzea" zan. Disfratau behar genduan ideatik proiektura eta ikuskizunerako ibilbide guztian be bai. Nik lortu dot eta antolatzaileen artean ikusten dodanez ilusioa dago, dana ondo urten-go dauala konbentziduta nago.